

## KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN		NAFARROAN	
35	1.624	42	529
positibo berri	hildako	positibo berri	hildako
2.947	4	6.465	Eguneratu gabe
positibo guztira*	UCIn EAEn	positibo guztira	

\*Hernanin 78 Astigarragan 24

## Oarso kaleko etxebizitza-bloke bat konfinatu dute, bertan positibo batzuk agertu ondoren

18 familiek atzo egin zituzten PCR frogak eta gaurko emaitzen zain egon beharko dute bertan konfinatuta kalera irten baino lehen. Hernanin zortzi positibo berri egon dira azken astean.

### HERNANI KORONABIRUSA

Orain arte bailarako herriak COVID-19-aren infekzio-foku izatetik kanpo zeuden, baina pasa den asteburuan foku txiki bat agertu da Hernaniko Oarso (Oiarzu) kalean. Horrexegatik etxebizitza bloke bat konfinatu zuten asteleheneko azken orduetan, bi familiako kideek positibo eman ostean.

Neurria indarrean egongo da, 18 familietako kideek atzo egin zituzten PCR frogak negatiboak izan arte. Goizean hasi ziren frogak egiten eta gaur goizean zehar jakingo dituzte emaitzak.

Iturriek baieztatu zuten, asteleheneko azken orduan azaldu zitzaizen egoera familiei; eta goizean zehar PCRak egin zituzten 6garren zenbakiko 18 etxebizitzetan kutsatze berriak baztertzeko. Bi etxebizitzetan aurretik egin zituzten eta beste bi hutsak daude une honetan. SMS bidez iritsiko zaie mezua negatibo ematen dutenei eta zuzenean telefonora deituko zaie positibo ematen dutenei.

Hernaniko Udalak lasaitasunez eta arduraz jokatzeko deia egiten die herritarrei, egoera profesionalen esku baitago eta beharren arabera informatuta eta hartu beharreko neurriak jakinaraziko baitzaizkie ohiko bideetatik.

**Zazpi positibo aurreko astean eta horietatik bost asteburuan** Azken astean, Hernanin zazpi positibo egon dira koronabirus frogetan, baina ostegunetik, eta, bereziki, larunbata eta igandean, bost kasu berri atzeman zituzten. Atzo ere beste positibo

bat agertu zen eta beraz, zortzi dira guztira bost egunetan eta zazpi azken lau egunetan.

Gipuzkoan, 35 positibo berri agertu dira azken egunean eta horietatik 16 Eibarren eta 11 Donostian zenbatu dira. Eibarreko fokoa oraindik ere ez dago kontrolpean eta Donostian agertutako positiboek Osasun Saila arduratzen dute. Euskal Autonomi Erkidegoan 130 positibo atzeman dira eta horietatik 85 Bizkaian. Nafarroan atzo 42 positibo berri egon ziren.

### Euskal Herriko egoera okerrena da Europan, Aragoi eta Kataluniaren ondoren

Hernanin gertatu dena, Euskal Herrian eta Espainian azken bi-hiru asteetan gertatzen ari denaren islada besterik ez da. Europa guztiko datu okerrenak dituzte Espainian eta Estatuaren barruan Euskal Autonomi Erkidegoan eta Nafarroan kutsatuen datuak txarrenetakoak dira. Azken bi asteetan, 100.000 biztanleko 47 kasu pilatu dira Espainian. Nafarroan 136 pilatu dira eta Aragoi da datu okerragoak dituen bakarra. EAEn 66 pilatu dira 100.000 biztanleko eta horrek sailkapen horretan laugarren kokatzen du Aragoi, Nafarroa eta Kataluniaren atzetik. Madril da ondorengoa, baina 28an dago. Ekainaren erdialdetik uztailaren hasiera arte 10etik behera mantendu zen Estatuan.

Europako beste herrialde haundi batzuekin alderatz gero, egoera kezagarria ikus daiteke: Frantzia eta Erresuma Batua ez dira 15era iristen, eta Italia eta Alemania 10etik behera daude. **K**



Oarso kaleko bloke bat dago konfinatua hainbat kasu positibo agertu eta gero.

## Taberna eta dantzalekuek 01:30etan itxi beharko dute Euskal Erkidegoan

Eusko Jaurlaritzak neurriak zehazten dituen agindua berehala kaleratuko du, eta astebururako indarrean izatea espero du Murga sailburuak.

### URUMEA KORONABIRUSA

Nekane Murga Eusko Jaurlaritzako Osasu sailburuak iragarri du neurri murriztaileak zehazten dituen dokumentu bat argitaratuko duela Jaurlaritzak asteburu aurretik, eta astebururako neurri horiek martxan izango direla. Dokumentu horretan jasoko diren neurri batzuk, baina, agerraldian aurreratu zituen: taberna guztiek 01:30etan itxi beharko dute, eta ezingo dira ireki goizeko seiak baino lehen. Diskotekei eta dantzalekuei dago-kienez, edukieraren %60 bete ahal izango dute soilik, eta

ezingo da dantzalekua erabili, mahaietan egoteko ez bada.

### Gauerditik aurrera ezingo da kontsumitu zutik

Era berean, gauerditik aurrera ezingo da kontsumitu mahaietan eserita ez bada, barruan zein terrazetan. Ehun pertsonatik gorako edukiera duten jatetxe eta tabernetan, edukierak ezingo du %80 gainditu eta mahaietan ezingo dira hamar pertsona baino gehiago eseri.

**Beilatokietan eta hiletetan edukieraren %60 edo 60 pertsona gehieneko** Aisialdiari eragiteaz gain, pi-

laketak sortu daitezkeen beste eremuetan ere aplikatuko dira neurriak: besteak beste, beilatokietan eta hiletetan. Beilatokietan, edukiera gehienez ere 60 pertsonakoa izango da, eta ezingo du edukieraren %60 gainditu, eta hiletetan ere 60 pertsona bildu ahalko dira gehienez ere. Bestalde, gazte lokalak erabiltzea debekaturik egongo da.

**Bihotzeko eta arnas arazoak dituztenak ere maskarilla** Bestetik, Murgak adierazi zuen bihotzeko edota arnas arazoak dituztenek ere maskarilla erabili beharko dutela.

San Inazio egunean

## MENU BEREZIA

Zatoz, egun ederra pasako dugu eta!  
Covid-aren ondorioz  
aurten ez da trikitilariarik egongo

Marraka-Enea baserria,  
Santa Barbara auzoa, 92

943 55 64 81 - 943 55 46 75

# PEÑA

sulabe

Okindegia - Janaridenda

Eguneroko zure beharrei erantzuteko,  
Kale Nagusian gaude.

Kale nagusia, 19 - Tel.: 943 55 23 98

## ITXASPE

Arrandegia  
Antziola 5  
Tel.: 943 330 365  
Mobila: 665 735 224  
20120 Hernani

# IKATZA

Astigarraga

Kale Nagusia 32,  
ASTIGARRAGA

943 55 49 89

ikatzataberna20@gmail.com



**EGURALDIA GAUR** Eguraldiak hobera egingo du. Goizean oraindik lainotuta egongo da, baina arratsaldean lainoak gubituko dira. Temperaturak ez du aldaketarik izango. **Min.17° / Max.25°**

**BIHAR** Temperatura igo eta bero handia egingo du. Hego-ekialdeko haizea harro samar ibiliko da eta termometroa 35-40°C artean ibiliko da hainbat bazterretan. **Min.18° / Max.38°**

**DOBERA EUSKARA ELKARTEA**

**LAGUNTZAILEAK**

**Hernaniko Udala**

**Astigarragako Udala**

**Ereñotzako Udala**

**Goizuetako Udala**

**Aranoko Udala**

**TAXIAK:** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622  
**AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Castilla Urbietan, 7 (Hernani) 943 552941** **Gauetz:** **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**

**EUSKAL GOBIERNUA**

**GIJONKO FORU AHDURAK**

**DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK**

**PREZIOA**

## Txistulari banda «harrera oso ona» jasotzen ari da auzoz auzoko itzulian

Santa Barbaran «txalo zaparrada jaso genuen» eta alkateak eskertu die zaharren egoitzan egoiliarrei eskainitako diana.

**HERNANI TXISTULARI BANDA**

Igandeetan abuztua barne, txistulariak kaxkoan jotzeaz gain auzoz auzo dabilta euren soinu eta doinuak zabaltzen. Azken bi igandeetan Elizatxon eta Santa Barbara auzoan izan dira. Azken honetan, «harridura haundiz eta pozez hartu gaituzte; izan ere, inoiz ez bait gera bertan egon jotzen» ezagutarazi nahi izan dute txistulariek.

«Bizilagunek bideoak eta ar-



Zaharren egoitzan jo zuten Madalena egunean

gazkiak atera dituzte eta txalo zaparrada jaso dugu. Eskertze-koa da horrelako harrera ona».

Ez da esperientzi on bakarra izan. Madalena egunean hirugarren adinekoen egoitzara egindako bisita dela eta, alkatearen eskertza jaso du herriko txistulari bandak.

«Eskerrak eman nahi dizkizuet egoiliarrei urtero bezala Madalena egunean dianaz gozatzeko aukera emateagatik. Aurten inoiz baino gehiago, bizi ari garen egoeragatik, berezia izan da egoiliarrentzat eta horrela jakinarazi digute» dio mezuaren Lertxundi alkateak. **K**

## 'Erik eta Win' bertso antzerkia larunbatean, Atsegindegian

Uda Hernanin egitarauan 20:00etarako dago iragarrita eta ekitaldia doakoa izan arren gonbidapenak eskuratu behar dira Biterin.

**HERNANI KULTURA**

Uda Hernanin 2020 Programazioa uztailean jarri da martxan herritarren erantzun onarekin eta larunbata honetan, abuztuak 1, *Erik eta win* bertso-antzerkia dago iragarrita Atsegindegian, 20:00etan hasita.

Buhameak taldeak eskaintzen du eta bertan, Unai Muñoa

eta Ander Lizarralde bertsoari abesten aritzen dira. Imanol Kamiok pianoa eta eskusoinuarekin laguntzen die eta Aitor Atxegak gitarrarekin.

Oraingoan ere, bertso doinuak erabiliko dira, baina beste-lako doinuak ere gehitu dituzte: buleria bat edo son kubatarra, adibidez. Horrez gain, abesteko modua ere asko zaindu izana

azpimarratu dute, eta kantu ba-koitzak bere koreografia izango du. Horrela, kantua, poesia, bertsoa, antzerkia eta musika uz-tartu dituzte.

**Gonbidapenak lortzeko, 09:00etatik 14:00etara**

Antolakuntzatik gogoratu nahi dute emankizuna doakoa dela, baina alde aurretik gonbidapenak eskuratu behar dira Biterin 09:00etatik 14:00etara. Hurrengo astean *Maria Berasarte. Lurra eta bidea* musika emanaldia eskainiko da. **K**

## Larrañagak doinu berriak, etxean

**HERNANI MUSIKA**

Uda Hernanin 2020 Programazioaren barruan, Ainhoa Larrañaga abeslari hernaniarrak kontzertua eskaini zuen Atsegindegiko taula gainean, pasa den ostiralean. Bertan, *Eskuminak* bere disko berria aurkeztu zuen, lau musikariren laguntzaz: Haritz Lauroba bateriarekin, Iker Lauroba baxua eta kontrabaxuarekin, Amaia Miranda gitarrarajotzen, eta Garazi Esnaola pianoarekin. Jendea asko bildu zen doinu berriak entzuteko eta abeslariak berak ere gozatu zuen herritarren aurrean abesten.



Ereñotzuko frontoian eskaini zen antzezlan.

## Bikote baten pasadizoak dibertigarri

**EREÑOTZU ANTZERKIA**

Zoaz pake santuan antzezlan eskaini zuten Ane Gabarain eta Mikel Laskurain aktoreek pasa den ostegunean Ereñotzun. Eskarmentu haundiko aktoreak

direla nabaritu zen eta frontoira hurbildutakoek eskertu zuten. Bikoteak etengabeko ustekabeez gain, akatsez eta ahuleziak betetako antzezlan dibertigarria eskaini zuen.

## Odol ematea asteartean, Goizuetan

**GOIZUETA ODOL EMAILEAK**

Hurrengo asteartean autohemotekarekin joango dira Goizuetara emaleei odola ateratzera. 17:30etatik 20:30etara izango da zita eta harrera mediku kontsultan egingo da eta odol ematea plazan. eskatutako hitzordua daukatenak onartuko dira bakarrik. Eska daiteke hitzordua 848 42 05 73 telefono zenbakian.

## Bilera irekiak eten egin dira irailera arte

**HERNANI KALERATZEAK STOP**

Hernaniko Kaleratzeak Stop elkarteak eten egin ditu ostegunetako bilera irekiak, irailaren 3ra arte. Egun horretan hasiko dira berriz bilerak, 19:00etan, Transpacarreko lokalean. Denbora horretan etxebizitzarekin premiazko arazoak dituen edonork jo eta deitu dezake 604 112 740 telefono mugikorrera laguntza eske edo [stopdesahucioshernani@nodo50.org](mailto:stopdesahucioshernani@nodo50.org) helbide elektronikora.

## Udal baratzaren zozketa publikoa, bihar

**HERNANI UDALA**

Dagoeneko Antziola-Sagastialdeko udal baratzaren erabiltzaile izateko prozeduran onartu eta bazterturikoen behin-betiko zerrenda [www.hernani.eus](http://www.hernani.eus) webgunean dago ikusgai. 102 pertsonak eman dute izena eta 72 baratza daudenez, zozketa egingo da bihar uz-tailaren 30ean 10:00etan. Zozketaren izaera publikoa bermatzeko, Hernaniko Udalaren youtubeko kanaletik zuzenean streaming bidez emango da; ikusi ahal izateko aurretik harpidetu egin beharko da youtube aplikazioan sartuta.

## 'Ehiztari ehizatua' antzerkia bihar eskainiko da Ibarrolaburu plazan

**HERNANI PORTU AUZOA**

Portu auzoko bizilagunek, udalaren laguntzarekin, *Ehiztari ehizatua* antzerki familiarra iragarri dute biharko, 18:00etan, Ibarrolaburu plazan. Patata Tropikala antzerki taldearen antzezlan da eta Udan Kulturaz Blai egitasmoaren barruan kokatzen da emankizuna.

## IRAGARKI MERKEAK

**Pertsona bat behar da asteburuetan prentsa-kioskoan lan egiteko.** Euskara jakitea ezinberstekoa. **Deitu 688 69 40 34**

**Senda Viva, Bardenas Reales, Ebroko ibilbideak...** 3 gelako pisua alokagai, Nafarroako Villafranca herrian. Gutxienez 10 gau, 950€ + fidantza. **potti76@hotmail.com / 629 71 88 73**

**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**



Ainhoa Larrañaga Atsegindegiko taula gainean.